



Sukalkia okela-gisadua da, ez erregosia. Gisadu hori egiteko Bizkaiko sukaldaritza tradizionaleko jeneroak erabilten dira. Mungiarrok 50 urte baino gehiago daroaguz horren gogoko dogun jarduera gastronomikoa antolatzen.

**1. OSAGAIK:**

- . Behi-okelea: faldea, zankarroia edota agujea.
  - . Patatak (okeleagaz batera prestau behar dira, haren gustua eta saldearena hartu daien); neurriak beti baserriko gisaduetan erabili dana izan behar dau, forma biribilduan zein laskeatuan.
  - . Piper txorixeruak (sano garrantzitzuak dira gisaduaren gusturako eta kolorerako).
  - . Kinpulea (garrantzitzua gisaduaren gusturako eta kolorerako).
  - . Idarrak, Zanoriak, Tomateak, Berakatza, Oliba-orioa edo txarri koipea, Gatza eta Ardao zuria.
- Plater hau prestatzeko bakotxak gustuko dauen okela-saldea erabili ahal dau.

**2. EGITEKO ARAUAK:**

- . Sukalkia, txapelketa-gunearen barruan egin behar da.
- . Sukalkia egiteko ezin da presinoko lapikorik edo arin prestatzeko lapiko berezirik erabili.
- . Txapelketara aurkezten diran kazuelek gitxienetik sei lagunentzako beste jateko euki behar dabe.
- . Gomendioa: (sua egurragaz egiteko asmoa badozu), behetik apur bat gorago igon da dagozan suak edo barbakoak erabiltea gomendatzen dogu, izan bere, horixe da Uriguen Parkeko beheko debarra jagoteko modua.

**GAZTEEN PARTE-HARTZEA:**

. Gazte kuadrilei sukalkiko jai transmititzeko helburuagaz, (giro honeko jai herrikoia, kuadrila desberniak biltzen dituen eta gure herriko kultura gastronomikoa goraipatzen dauena) maila bi antolatuko dira: **30** urtetik gorakoak, eta **30** urtetik beherakoak. Kazularak aparte baloratuko dira, zerrenda bitan. Maila bakoitzak bere sariak izango ditu. Sukaldari aditu talde bat ibiliko da gazteei laguntzen, identifikatuta egongo dira, eta gazteak dagozen lekuetatik pasatuko dira behardan laguntza emoteko.

**3. IZEN EMOTEA:**

Kazulen izen emotea debaldekoa izango da eta 10:00 eta 11:30 bitartean egin beharko da, bertan parkean.

**4. KAZULEN AURKEZPENA:**

Kazuelak 13:00etatik 14:00etara aurkeztu beharko dira.

**5. PUNTUAZINOIA:**

- Epemahaiak irizpide honen arabera puntuatuko dauz kazularak:
  - .Gisaduraren aurkezpena: 5 puntu gehienez.
  - .Gustua: 10 puntu gehienez.
  - .Puntua: 10 puntu gehienez.

**5. SARI BANAKETA:**

Sari banaketa, 17:30ean hasiko da, betiko danborradearen ostean, (GURE AMETSA Txistulari Elkarteagaz).

**6. OHARRAK:**

- . Antolatzaileek ez dau banatuko sua egiteko egurrik, bakotxak ekarri bekarko dau berak behar daben egurra. (sua egurregaz egiteko asmoa badozu).
- . Antolatzaileek zaborrak sailka banatzeko eta batzeko boltsa egokiak banatuko ditue. Sukalki eremuan zaborrak sailkatuta botateko edukinontzi bereziak egongo dira horretarako gunen baten.
- . Gomendatzen dogu jazkeran tradizinoari eustea, hau da, gona edo fraka urdinak eta kamiseta zuriagaz joatea.
- . Mesedez, batu zabor guztiak eta itxi erabilitako eremua garbi eta txukun. Lehiaketa honetan parte hartzeak beronen oinarri guztiak onartzea dakar. Antolatzaileek euren esku izango dabe oinarri honeei lotuta sortu leitekean edozein zalantza, ezusteko edo interpretazinoren aurrean erabagiak hartzeko eskubidea. Era berean, lehiaketa ondo bideratzeko egoikitzak jotzen daben adozein aldaketa egiteko eskumena bere izango dabe Antolatzaileek.

**7. GALARAZOTA DAGO:**

- . Ibilgailuak sartzea eta ibiltea Sukalki eremuaren barruan, horretarako baimena antolatzaileek eta Larrialdietako zerbitzuetakoek baino ez daukie.
- . Ezin da gunerik itxi Sukalki eremuaren barruan.

**8. IZOTZA:**

- . Sukalki Lehiaketaren eremuaren barruan goizean zehar, izotza erosteko aukera egongo da.

Antolatzailea: **LARRAMENDI Ikastola**.

**EKINTZA OSAGARRIAK:**

- 10:30 KALEJIRA DULTZAINEROakaz.
- 11:30 KALEJIRA GURE AMETSA txistulari elk.
- 12:30 KALEJIRA TRIKITILARIAKaz.
- 14:00 KALEJIRA TXIKURI fanfarriagaz.
- 19:00 KALEJIRAREN hasiera TXIKURI fanfarriagaz FORUEN Plazaraino.
- 22:00 FORUEN Plazan ERROMERIA.
- 24:00 SAN PEDRO JAIEN AMAIERA, Udaletxe aurrean, MARIJATARI agur esan eta painelauak erreko dira.